

Euskal AEko hotelak: sarrerak, gualdiak, betetze-maila eta errentagarritasuna. 2025eko abendua

Nabarmenduak

2025. urtea

Sarrerak: Euskal AEn 3.896.837 sarrera erregistratu dira eta % 3,5 gehitu 2024koen aldean

Gualdiak: 7.727.069 izan dira, 2024an baino % 3,6 gehiago

Batez besteko egonaldia¹: 1,98 egun, 2024ko berbera

Gelakako betetze-maila: % 69,8, 2024an baino 0,8 puntu gehiago

Errentagarritasuna: ADR (eguneko batez besteko tarifa gela bakoitzeko) 120,4 eurotan kokatu da, eta RevPar (eguneko batez besteko diru-sarrerak gela bakoitzeko) 84,0 eurotan, 2024an baino % 5,6 eta % 6,9 gehiago

2025eko abendua

Sarrerak: Euskal AEn 257.307 sarrera erregistratu dira, 2024ko abenduan baino % 5,9 gehiago

Gualdiak: 476.356, 2024ko abenduan baino % 1,7 gehiago

Batez besteko egonaldia: 1,85 egun, aurreko urteko abenduko 1,93 egunak baino gutxiago

Gelakako betetze-maila: % 52,8, aurreko abenduan baino 0,6 puntu gehiago

Errentagarritasuna: ADR (eguneko batez besteko tarifa gela bakoitzeko) 91,9 eurotan kokatu da, eta RevPar (eguneko batez besteko diru-sarrerak gela bakoitzeko) 48,5 eurotan, 2024ko abenduan baino % 5,5 eta % 6,7 gehiago

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari

Analisi estatistikoa

2025. urtea

2025ean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek eta gaualdiak % 3,5 eta % 3,6 igo dira, hurrenez hurren, eta, ondorioz, 3.896.837 sarrera eta 7.727.069 gaualdi izan dira, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. 2025

	Sarrerek		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025	p/p-1 (%)	2025	p/p-1 (%)	2025	2024
EUSKAL AE	3.896.837	3,5	7.727.069	3,6	1,98	1,98
Estatukoak	2.029.247	1,5	3.908.373	0,4	1,93	1,95
Atzerritarrak	1.867.590	5,8	3.818.696	7,2	2,04	2,02
Araba/Álava	511.882	-2,7	1.096.472	1,9	2,14	2,05
Estatukoak	352.369	-2,6	740.754	-0,2	2,10	2,05
Atzerritarrak	159.513	-2,9	355.718	6,5	2,23	2,03
Vitoria-Gasteiz	387.954	-4,7	880.219	0,8	2,27	2,14
Bizkaia	1.791.639	7,6	3.427.735	6,4	1,91	1,93
Estatukoak	943.415	4,9	1.727.071	2,5	1,83	1,87
Atzerritarrak	848.224	10,7	1.700.664	10,7	2,00	2,01
Bilbao	1.233.349	9,3	2.382.586	7,8	1,93	1,96
Gipuzkoa	1.593.316	1,3	3.202.862	1,3	2,01	2,01
Estatukoak	733.463	-0,5	1.440.548	-1,9	1,96	1,99
Atzerritarrak	859.853	3,0	1.762.314	4,1	2,05	2,03
Donostia / San Sebastian	1.019.260	-1,0	2.122.612	-0,5	2,08	2,07

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

Data 2026ko Urtarrilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban, 2025. urtean zehar, 511.882 sarrera erregistratu dira, Euskal AEn erregistratutakoen % 13,1, 1.096.472 gaualdi, guztizkoaren % 14,2. Bizkaian sarreren % 46,0 erregistratu dira, 1.791.639, eta gauldien % 44,4, 3.427.735. Gipuzkoak, azkenik, sarreren % 40,9 bereganatu ditu, 1.593.316 guztira, eta 3.202.862 gaualdi, guztizkoaren % 41,4.

Zifra horien ondorioz, sarrerek % 7,6 igo dira urtean Bizkaian eta % 1,3 Gipuzkoan; Araban, berriz, % 2,7 jaitsi dira 2024. urte osoarekin alderatuta. Ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan: 2025ean % 6,4 igo da Bizkaian, % 1,9 Araban eta % 1,3 Gipuzkoan, aurreko urtearen aldean.

Atzerriko sarreren kopurua 2025ean 2024an erregistratutakoa baino % 5,8 handiagoa izan da. Gauldien kasuan, hazkundera are handiagoa izan da, urteko % 7,2ko hazkundera izan baitu.

Hiriburuka, Gasteizen eta Donostian erregistratutako sarrerek urte arteko % 4,7ko eta % 1,0ko jaitsierak ekarri dituzte, hurrenez hurren, eta Bilbon, berriz, % 9,3 igo dira. Ostatu-gauak % 0,5 egin dute behera Donostian, % 0,8 igo dira Gasteizen eta % 7,8 Bilbon.

2025ean batez besteko egonaldia 1,98 egunekoa izan da Euskal AE osoan, aurreko urtean bezala. Arabaren kasuan, 2,14 egunekoa izan da, eta 2024an, berriz, 2,05 egunekoa. Bizkaian, 1,91 egunekoa izan da, 2024ko 1,93en oso antzekoa, eta Gipuzkoan, azkenik, 2,01 egunekoa, aurreko urteko balio bera.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025	p.p. *	2025	p.p. *	2025	p/p-1 (%)	2025	p/p-1 (%)
EUSKAL AE	58,3	0,6	69,8	0,8	120,38	5,6	84,02	6,9
Araba/Álava	55,5	0,4	72,6	3,8	91,09	6,7	66,09	12,6
Vitoria-Gasteiz	56,6	0,2	77,2	4,3	78,88	9,8	60,86	16,2
Bizkaia	57,5	1,9	69,3	1,1	112,52	4,2	77,96	5,9
Bilbao	62,5	1,2	74,5	0,1	122,93	4,2	91,60	4,3
Gipuzkoa	60,3	-0,7	69,4	-0,5	140,07	7,3	97,22	6,5
Donostia / San Sebastian	65,6	-0,2	73,7	-0,6	168,62	8,7	124,19	7,8

p/p-1 Azken aldian izandako urte arteko aldakuntza-tasa (p), aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (p-1)

p.p.*= aurreko urteko portzentajezko puntuko aldea

Data 2026ko Urtarrilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzailleen Inkesta

2025. urtean, hotel-establezimenduen okupazio-maila % 58,3koa izan da Euskal AE osoan, plazen arabera neurtuta, eta % 69,8koa logelen arabera neurtuta. 2024. urteari dagokionez, plazakako betetze-maila ehuneko 0,6 puntu igo da, eta gelakako neurketan 0,8 puntu.

Errentagarritasun-adierazleei dagokionez, 2025. urteak 120,4 euroko balioa izan du ADRrako eta 84,0 euroko RevParerako, aurreko urtean baino % 5,6 eta % 6,9 gehiago, hurrenez hurren.

2025eko abendua

Analisia **2025eko abenduan** zentratuta, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 5,9 gehitu dira eta gaualdiak % 1,7 urte artean (2025eko abendua eta 2024ko abendua). Sarrerak 257.307 izan dira eta 476.356 gaualdi izan dira guztira.

2025eko abenduan, sarrera guztien % 35,2 eta gaualdien % 37,3 atzerritarrak izan dira; ehuneko horiek 2024ko abenduan erregistratutakoak baino handiagoak dira. Orduan, atzerriko sarrerak eta gaualdiak % 34,0 eta % 35,0 izan ziren, hurrenez hurren. Atzeritar jatorriko sarreren eta gaualdien kopuruak urte artean % 9,6 eta % 8,4 egin du gora, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Abendua 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	2024/12
EUSKAL AE	257.307	5,9	476.356	1,7	1,85	1,93
Estatukoak	166.766	4,0	298.577	-1,9	1,79	1,90
Atzeritarrak	90.541	9,6	177.779	8,4	1,96	1,99
Araba/Álava	37.854	3,5	78.953	1,5	2,09	2,13
Estatukoak	29.810	4,1	57.120	-4,0	1,92	2,08
Atzeritarrak	8.044	1,6	21.833	19,7	2,71	2,30
Vitoria-Gasteiz	29.617	-0,4	64.834	-2,3	2,19	2,23
Bizkaia	115.458	6,0	209.278	0,4	1,81	1,91
Estatukoak	78.418	3,2	134.708	-2,8	1,72	1,82
Atzeritarrak	37.040	12,5	74.570	6,7	2,01	2,12
Bilbao	85.787	7,9	155.193	0,8	1,81	1,94
Gipuzkoa	103.995	6,7	188.125	3,4	1,81	1,87
Estatukoak	58.538	5,0	106.749	0,6	1,82	1,90
Atzeritarrak	45.457	8,9	81.376	7,2	1,79	1,82
Donostia / San Sebastián	71.820	6,6	133.902	6,2	1,86	1,87

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2026ko Urtarrilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 37.854 sarrera eta 78.953 gualdi erregistratu dira, aurreko urteko abenduan baino % 3,5 eta % 1,5 gehiago. Bizkaian, sarrerak % 6,0 igo dira eta gualdiak % 0,4, 115.458 sarrerarekin eta 209.278 ostatu-gauekin. Gipuzkoan, 2025eko azken hilabetearen, 103.995 sarrera erregistratu dira, 2024ko abenduan baino % 6,7 gehiago, eta 188.125 gualdi, aurreko urteko hilabete berean baino % 3,4 gehiago.

Hiriburuka, sarreren kopurua % 0,4 jaitsi da Gasteizen, eta igo egin da Bilbon (% 7,9) eta Donostian (% 6,6). Bestalde, aurreko urteko abenduaren aldean, gualdiak % 2,3 murriztu dira Gasteizen, eta % 0,8 igo dira Bilbon eta % 6,2 Donostian.

2025eko abenduko batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa izan da Euskal AE osoan, hau da, 2024ko hil berekoa (1,93 egun) baino txikiagoa.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abendua 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/12	p.p. *	2025/12	p.p. *	2025/12	m/m-12 (%)	2025/12	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	44,4	0,4	52,8	0,6	91,87	5,5	48,47	6,7
Araba/Álava	45,9	-1,7	59,5	-0,4	81,68	7,5	48,59	6,8
Vitoria-Gasteiz	49,2	-1,4	65,7	0,2	75,52	9,0	49,58	9,3
Bizkaia	42,8	-0,3	51,2	0,2	94,47	6,8	48,35	7,2
Bilbao	47,9	-1,0	56,7	0,1	99,59	8,1	56,42	8,2
Gipuzkoa	45,6	1,9	52,0	1,4	93,39	3,3	48,57	6,0
Donostia / San Sebastian	50,6	3,8	56,0	4,0	101,08	-0,2	56,63	7,6

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentaje zko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2026ko Urtarrilaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

2025eko abenduko betetze-maila, Euskal AE osoan, % 44,4koa izan da plazen arabera neurtuz gero, eta % 52,8koa gelen arabera neurtuz gero. 2024ko abenduarekin alderatuta, plazen okupazioak ehuneko 0,4 puntu egin du gora, eta gelen okupazioak 0,6 puntu.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, 91,9 eurokoa izan da Euskal AE osoan 2025eko abenduan, hau da, % 5,5eko igoera aurreko urteko abenduaren aldean. ADRa 94,5 eurokoa izan da Bizkaian, 93,4 eurokoa Gipuzkoan eta 81,7 eurokoa Araban. Hiriburuen arteko aldeak antzekoak izan dira; izan ere, ADRa 101,1 eurotan kokatu da Donostian, 99,6 eurotan Bilbon eta 75,5 eurotan Gasteizen. RevPar, edo gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak, 48,5 eurokoa izan da Euskal AEn 2025eko abenduan, aurreko urteko hil berean baino % 6,7 handiagoa.

Informazio-oharra

2025eko abenduko hotelen ETRaren estaldura % 81,1ekoa izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

[Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak](#)

Informazio gehiago:

- Estatistika taulak: [\[ver\]](#)
- Datu Bankoa: [\[ver\]](#)
- Grafiko interaktiboak: [\[ver\]](#)
- Metodología eta kalitatea: [\[ver\]](#)
- Definizioak: [\[ver\]](#)
- Kode eta izendegiak: [\[ver\]](#)
- Egutegia: [\[ver\]](#)
- Prentsa-oharrak: [\[ver\]](#)